

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
INGURUMEN-IRAUNKORTASUNARI
BURUZKO 2006KO TXOSTENA**

2006KO EKAINAREN 6A



AURKIBIDEA

1.	Aurkezpena	2
2.	2002-2006ko Ingurumeneko Esparru-Programaren BALANTZEA	4
3.	EUROPAKO BATASUNAREKIN ETA NAZIO BATUEKIN BAT EGINDA.....	10
4.	Euskadi: ingurumenari buruzko ikuspegi berria 2020rako.....	12
4.1	ALDAKETAK EGITEKO ERAGILEAK.....	12
4.2	2020RAKO ARDATZ NAGUSIAK	16
4.3	IRAUNKORTASUNA LORTZEKO BIDEAN AURRERA	19
	ERANSKINA: 2002-2006 IEP-KO KONPROMISOEN BETETZE-MAILA	21

1. AURKEZPENA

Europako Batasunak ezagutzaren eta iraunkortasunaren gizarte berriaren aldeko apustua egin du, Lisboako Estrategiaren eta Gotemburgeko Estrategiaren bidez. Eskualde eta herrialde aitzindari horien artean dago, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoa. Pertsonak eta ingurumen-kalitatea dira apustu horren oinarritzko osagaiak, eta biak oso lotuta daude. Euskal Autonomia Erkidegoak kondizio egokiak ditu garapen ekonomiko eta teknologikorako aukera-plataforma estrategiko bihurtzeko ingurumena eta herritarren bizi-kalitatea nabarmen hobetzeko. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak zinez uste du ingurumena babestea eta hobetzea dela EAEren historiako bigarren modernizazio handiranzko eta aldaketa ekonomikorako bidean aurrera egiteko oinarritzko zutabeetako bat.

Lehenbiziko eraldaketan –azken hogeitau urteetan gertatu dena–, Euskal Autonomia Erkidegoak oinarriak finkatu ditu ibaien eta hiri eta herrietako airearen kalitatea asko hobetzeko, lurzoruak berreskuratzeko eta natura, biodibertsitatea eta ingurumena babestu eta zaintzeko. Europako Batasunak egindako apustuarekin bat eginez, gure garapen-ereduaren bigarren modernizazio handia ingurumen-iraunkortasunaren ikuspegiarekin gauzatu behar da. Herritarrek balio handia ematen diote natura eta ingurumena zaintzeari, beren identitatearen eta bizi-kalitatearen ezaugarri gisa; eta horrelako gizartea izatea da, hain zuzen, gure herrialdearen aktibo nagusia. Horiek guztiak EAEko eraldaketa ekonomikoa gauzatzeko finkatutako ardatzen –informazioaren eta ezagutzaren gizartea, ikerketa eta teknologia eta kalitate totala– zeharkako elementutzat hartu behar dira.

Gobernu honen ikuspegi nagusia hau da: 2020an, datorren belaunaldiari, ingurumen-arazo nagusiak konponduta dituen EAE bat eskaintzea.

Halaber, aukera-ildo estrategikoa da 2020rako gure herria Europako aitzindari bihurtzea arlo hauetan: herrien eta hirien ingurumen-kalitatea, teknologia garbien garapena eta aplikazioa, ekoeraginkortasuna eta eraginkortasun energetikoa, eskura dauden teknologia onenen erabilera eta sorrera eta industriarako, zerbitzuetarako, nekazaritzarako eta abarrerako ingurumen-hobekuntzak eragingo dituzten aplikazio berritzaileak sortzeko EAEko zentro teknologikoen sarearen sorrera. Horrez guztiaz gain, lurralde orekatua eta biodibertsitate ezagun eta babestua lortu nahi dira. Oro har, iraunkortasunaren ezagutzaren eta garapenaren mugan egoteagatik Euskal Autonomia Erkidegoa nazioartean aintzat hartzea nahi dugu.

Horrenbestez, EAEk ingurumenaren arloan egiten diren aurrerapenak aprobetxatu behar ditu, baita horrek pertsonen osasunarekin eta bizi-kalitatearekin duen zuzeneko lotura ere, etorkizunerako aukera berri gisa. Modernizazio ekonomikoaren hurrengo urratsean eraginkortasun handiagoz erabili behar dira baliabide materialak eta energetikoak, bai ekoizpenari bai kontsumoari dagokienez; beraz, berrikuntza zientifiko eta teknologikoko asmo handiko prozesu bat jarri behar da martxan, eta horrek, aldi berean, garapen ekonomikoa eta kalitatezko enplegua eragingo ditu. Horrekin batera, justiziaren eta kohesio sozialaren alde egin eta populazioaren zahartzeari aurrea hartzen badiogu,

garapen iraunkorraren bidean aurrera eraginkortasun handienaz egiten duten Europako herrialde eta eskualdeen artean izango gara.

Gobernuak ondo daki, ekonomikoki garatutako gizarte gisa, hegoaldeko herrialdeekin, ingurumena eta giza justizia babesteko bidean aurrera egin dezaten, erantzukizun handia dugula. Ahalegin handia egingo dugu horretan, eta Gobernuaren ingurumen-agendan nagusia izango da klima-aldaketaren aurkako borroka.

“Garapen Iraunkorra funtsezko xedea da Europako Batasuneko politika guztietan. Horren helburua da Planetako herritarren eta etorkizuneko belaunaldien bizi-kalitatea etengabe hobetzea. Lurrak bizitzaren egitura guztiei eusteko duen gaitasuna zaindu nahi da. Demokrazia-printzipioetan eta legearen eta oinarrizko eskubideen errespetuan oinarritzen da, askatasuna eta aukera-berdintasuna barne. Egungo biztanleen arteko eta etorkizuneko belaunaldiekiko elkartasuna bermatzen du. Ekonomia dinamiko bat bultzatu nahi du, betiere enplegu- eta hezkuntza-maila, osasunaren babes-maila, kohesio sozialaren eta lurralde-kohesioaren maila eta ingurumenaren babes-maila handiak izanik, mundu seguru batean eta bakean, eta kultura-aniztasuna errespetatuta”.

Garapen iraunkorraren printzipio gidariak.
Europako Batasunaren Kontseilua. 2005eko maiatza.

2. 2002-2006KO INGURUMENEO ESPARRU-PROGRAMAREN BALANTZEA

EAE ingurumen-politika definitzen eta artikulatzen joan da, hainbat giltzarri garrantzitsuren bidez. **Ingurumena Babesteko Lege Orokorra** –Eusko Jaurlaritzak 1998an onartua– funtsezkoa da arkitektura honetan, gure herrialdean garapen iraunkorraren eredu bat hartzeko konpromiso sendoa adierazten duen legea baita. Gero, Lehendakariak eta kontseilariak **EAEko Iraunkortasunaren aldeko Konpromisoa** sinatu zuten 2001eko urtarrilean; eta, horren bidez, hauek lortzeko bidean aurrera egiteko printzipio gidariak eguneratu ziren: iraunkortasuna, kode etikoa, gizarte-kohesioa eta parte-hartzea, prebentzio-printzipioa, ikuspegi integratua, ekoeraginkortasuna eta plangintza estrategikoa.

2002an, Eusko Jaurlaritzak **Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia (GIEIE 2002-2020)** onartu zuen; Europako ingurumen-politikarekin bat eginez, hainbat xede, helburu eta konpromiso finkatu ziren epe labur, ertain eta luzerako. Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategian jasotako epe laburrerako ingurumen-politikako helburuak eta konpromisoak **2002-2006ko Ingurumen Esparru Programan** bildu ziren –eta amaituta dago–. Hala, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila 2007-2010eko Ingurumen Esparru Programa prestatzen ari da egun.

2002-2006 Ingurumen Esparru Programaren balantze orokorra oso positiboa da, hainbat arlotan:

Lehenbizi, Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategiari (2002-2020) eta horren Ingurumen Esparru Programari (2002-2006) esker, **gure herrialdeak ingurumen-politika kudeatzeko sistema integratua izan du, Europako Batasunaren esperientzia aurreratuenekin bat eginez**. 2001ean Iraunkortasunaren aldeko Konpromisoa sinatzean, martxan jarritako sistemak koherentziaz barne hartzen ditu diagnostikoa egiteko, plangintza egiteko, garatzeko, segimendua egiteko eta ebaluatzeko zikloa, betiere gizartearen eta eragile ekonomikoen iritziarekin sistematikoki osatuta.

Ildo horretan, gure herrialdeak hiru urtean behin egiten du ingurumen-egoeraren diagnostiko sakona: *EAEko ingurumenaren egoera* deritzo. Europako Ingurumen Agentziak proposatutako metodologiari jarraiki egiten da: indar eragileak/presioa/egoera/inpaktua/erantzuna. Plangintza estrategikoa du (GIEIE), eta epe labur, ertain eta luzeko xedeak, helburuak eta konpromisoak definitzen ditu. Urte hauetan ezartzen joan diren politiken bidez gauzatu da pixkanaka garapena.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak urtero aurkezten duen *Ingurumen Adierazleen Txostenaren* bitartez egiten da segimendua.

Azkenik, ebaluazioa egiteko hainbat baliabide erabiltzen dira: batetik, urtero, ekainean, Gobernuak onartzen duen *Ingurumen Iraunkortasunaren Txostena*, eta, bestetik, lau urtean behin egiten den estrategiaren eguneratzea –horren bidez, Ingurumeneko Esparru

Programa berri bat sortzen da—. Halaber, maiz aztertzen da jendearen eta eragile ekonomikoen iritzia, *Ekobarometro soziala* eta *Ekobarometro industrialaren* bitartez.

Bigarrenik, 2002-2006 IEPk oinarriak jarri ditu Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako politika, plan eta programa guztietan ingurumenaren ikuspegia txertatzen joateko.

Sektoreko eta lurraldeko politika guztietan pixkanaka sartu dira ingurumen-alderdiak, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren eta Gobernuko beste hainbat sailen – Industria, Nekazaritza, Etxebizitza...– artean elkarrekin gauzatutako ekimen politika ugariren bitartez. Baina garraioa, kontsumoa, hirigintza eta beste hainbat arlotan, ez da behar bezainbat sartu ingurumenaren ikuspegia.

Hirugarrenik, 2002-2006 IEPtik sortutako ingurumen-politikekin hobetu egin da gure herrialdeko ingurumenaren egoera –uraren kalitatea, airearen kalitate orokorra, lurzoru poluituak berreskuratzea, hiri-hondakinak eta hondakin arriskutsuak kudeatzea, naturagune babestuen sarea handitzea...–. Baina egia da egindako aurrerapenek ahulguneak dituztela hainbat gaitan, adibidez: berotegi-efektuko gasen emisioak, garraioak eragiten duen aire-poluzioa, lurraldearen artifizializazioa edo hiri-hondakinen sorrera.

Laugarrenik, 2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programa egin eta garatzeak gizartea informatzeko prozesuetan eta eragile sozial eta ekonomikoek parte hartzeko prozesuetan aurrera egiteko aukera eman du. Gizarteko eta enpresetako erakundeek dozenaka ordezkariak eta hainbat adituk hartu zuten parte dokumentua egiteko prozesuan. Halaber, 2002-2006 IEP garatzeko esparruan, asko hedatu dira Tokiko Agenda 21en prozesuak EAEko udalerrietan. Gure agintaritzaren kalitatea hobetzeko balio handiko eskola parte-hartzaile gisa jarduten dute.

Bosgarrenik, konpromisoak ezartzen eraginkortasun handia izan da. 2002-2006 Ingurumeneko Esparru Programaren konpromisoen % 81 oso garatuta daude, bete dira edo behar bezala garatzen ari dira. Oso ona da hori, zalantzarik gabe (I. eranskinean banan-banan azaltzen dira 2002-2006 IEPko 178 konpromisoen egoera).

Zehazki, **Ingurumen Xedeei** dagokienez, konpromiso programatikoen % 83 (jarduera zehatz bati lotutakoak) oso garatuta daude edo gauzatu dira, dagoeneko. Halaber, konpromiso kuantitatiboen % 80k (zenbakizko helburu batekin lotutakoak) oso garapen egokia izan dute.

Bestalde, **aldaketarako kondizioekin** lotutako konpromiso programatikoen % 77 exekutatu daude edo oso garatuta daude. Gainera, kondizioekin lotuta hartutako konpromiso kuantitatiboen % 87 ongi garatu dira.

2002-2006 IEPrekin lotutako azken jarduera garrantzitsuenak

1. xedea. Aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea.

- Lurzorua ez poluitzeko eta poluitutakoa garbitzeko legea eta EAEko Lurzoru poluituen plana aurreratzea.
- Beira-karea-zeramika, gainazal tratamenduen eta elikaduraren sektoreekin Borondatezko Hitzarmenak sinatzea. Guztira bederlatzi sektorek sinatu dituzte hitzarmenak EAEko administrazioarekin.
- Informazioa kontrolatzea eta kudeatzea, Emisioen eta poluitzaile-transmisioen Europako Erregistroaren (E-PRTR) bitartez.
- Poluitzaile atmosferikoen immisio-mugak gainditzeko arriskua txikitzeko ekintza-planak.
- Teknologia Garbien EAEko zerrenda, energia-teknologia sartuta.
- Populazioaren % 97ri dagozkion hondakin-uren saneamendu-sareetan inbertitzea.

2. xedea. Natura-baliabideak eta hondakinak arduraz kudeatzea

- Uraren Legearen proiektua –egun Eusko Jaurlaritzan bideratzen ari dira–, uraren erregimen ekonomiko-finanzarioa ezartzen duena, kostuak sartzeko printzipioak kontuan hartuta.
- Ingurumenaren aldetik iraunkorra den kontsumo plana (2006-2010) (izapideak egiten).
- Euskal Autonomia Erkidegoko Etxebizitzaren Eraikuntza Iraunkorreko Gida.
- Euskal Autonomia Erkidegoan hiri-hondakinaren kudeaketaren esparru-plangintza egiteko ildoak.
- Hondakin arriskutsuen eta ez-arriskutsuen planak aurreratzea.

3. xedea. Natura eta biodibertsitatea babestea. Sustatu beharreko balio paregabea.

- Euskal Autonomia Erkidegoko naturagune babestuen sarea zabaltzea eta finkatzea. Gorbeia BIL, Aralarko BIL edo Aiako Harriko BILaren LIFE erabiltzeko eta kudeatzeko gidaplana. Aizkorri-Aratzeko eta Armañongo Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana, 2006an behin betiko onartzeko dago.
- EAEko korridore ekologikoen sarea proposatzea.
- 2005ean mendi publikoko eta pribatuko baso-azalera ordenatua % 18 hazi zen.
- PEFC ziurtagiri-sistemaren erabilerari baso-jabeek ongi erantzun diote. Zura eraldatzeko EAEko 70 enpresaren ziurtagiria babes-katean (ia sektore osoa).
- EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoa
- Landa-inguruneke Udaltalde 21 sustatzea, landa-eremuetan lurraldearen erabilera iraunkorrerako udal-planak diseinatzeke.

4. xedea. Lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua.

- 2005ean bost Lurralde Plan Partzial onartu ziren. 2006an beste bi onartzea espero da (Urola Kosta eta Bilbo Metropolitarrak). Halaber, 2006an, Itsasertzeko Lurralde Plan Sektoriala eta Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektoriala onartzea espero da (behin-behinean onartzea).
- EAEko 200 udalerrri daude inplikaturik Tokiko Agenda 21en prozesuetan.
- Bilboko metroaren eta tranbiaren zerbitzuak indartzea, EuskoTren XXI plan estrategikoa, logistika hobetzeko eta hainbat garraio-modalitate konbinatzeko (Aparcabisa, Zaisa, CTV, Arasur) aukerak hobetzeko jarduerak, Gasteizko tranbia-zerbitzuen plangintza egitea.

5. xedea. Klima-aldaketan duen eragina mugatzea.

- Klima-aldaketaren euskal bulegoa sortzea.
- 2010eko Euskadiko Energia Estrategia
- 50 eguzki-instalazio fotovoltaiko jarri dira martxan, udal-erakundeetako eta foru-aldundietako sarera konektatuta.
- Eraginkortasun energetikoko ziurtagiriak ematea sustapen publikoko etxebizitza guztietan eta sustapen publikoko gainerako gehienetan.

EAEEn iraunkortasunaren bidean aurrera egiteko beharrezko kondizioak.

- 183/2003 dekretua onartzea; horren bidez hainbat plan eta programari ingurumen-inpaktuaren ebaluazio bateratua egiten zaie, garapen iraunkorra lortzeko bidean aurrera egiteko.
- 5.000 biztanletik gorako EAEko udalerrri guztiak daude Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesuan.
- Urdaibain eta Debabarrenean garatutako Nazio Batuetako Ingurumen Programak sustatutako GAP proiektua (Global Action Plan).
- Eusko Jaurlaritzak parte hartzea Garapen Iraunkorraren aldeko Eskualdeko Gobernuen Sarean (nrg4sd).
- EAEko ingurumen-hezkuntzaren estrategia
- Energia kudeatzeko plana 96 udaletan.
- Lurzoru eta Hirigintza Legearen Proiektua bideratzea Eusko Jaurlaritzan.
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko informazio publikoko prozeduretan behar den dokumentazioa argitaratzea Interneten.
- Ingurumena Kudeatzeko Sistemak sustatzea: 2005eko amaieran EAEko enpresek ISO 14001en araberrako 815 ziurtagiri zituzten eta Ekoscan Arauaren araberrako 94 ziurtagiri.
- Eskolako Agenda 21en prozesuak nahitaezko hezkuntzako 245 ikastetxetan garatzen ari dira.
- Administrazio publikoek jarduera eredugarriak garatzea.
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak eta IHOBE Sozietate Publikoak ISO 14001 ziurtagiria dute, eta Eusko Jaurlaritzaren 8 eraikin Ekoscan Arauarekin daude ziurtatuta.

2002-2006ko Ingurumeneko Esparru Programaren balantzean politikek ingurumenaren egoeraren hobekuntzan izan duten eragina ere ebaluatu behar da.

1. xedeari dagokionez (*aire, ur eta lurzoru garbiak eta osasungarriak bermatzea*), asko hobetu dira atmosferaren poluzio-mailak –1990-2003 bitartean, substantzia azidotzaileen emisioak % 14 gutxitu ziren eta ozonoaren aitzindarien emisioak % 11–; hala ere, hainbat udalerritan ez dira gehiegi aldatu airearen kalitateari dagozkion hainbat alderdi –batez ere partikulen immisio-maila altuak direlako, errepide bidezko garraioaren ondorioz–.

Lurzoru poluituak berreskuratzeari dagokionez, era jarraituan egin da aurrera. 1990-2004 bitartean, 191 gune ikertu eta horietatik 95 berreskuratu dira. Lurzorua ez poluitzeko eta poluitutakoa garbitzeko 1/2005 Legea martxan jarri behar da datozen urteetan aurrera indarrez egiteko. Uren kalitateari dagokionez, 2000-2004 bitartean asko hobetu da, oro har, uraren kalitatea ibaietan eta kostako uretan, eta kalitatea egonkortu egin da estuarioetan. EAEko Uren Legearekin naturaren baliabide baliotsuenetako bat kudea daiteke era integratuan.

2. xedearekin (*Natura-baliabideak eta hondakinak arduraz kudeatzea*) lotuta formulatutako helburuei dagokienez, hazkunde ekonomikoaren eta baliabideen erabileraren arteko lotura hautsi egin dela ikus daiteke; izan ere, 1990-2004 bitartean, baliabide-eskaera EAEko ekonomia baino gutxiago hazi da. Batetik, ekonomiaren energia-eraginkortasuna –unitate ekonomiko bat sortzen behar den energia-kantitatea– % 13 hobetu da 1990-2004 bitartean; baina, bestetik, energiaren guztizko kontsumoak eta material-behar totalak handitzen segitu dute oro har. Hiri-hondakinen kudeaketa asko hobetu da. 1994 eta 2004 bitartean, hondakindegietara bideratutako hondakinen ehunekoa % 20 txikitu da –% 85etik % 65era–, eta gaika bildutako etxeko hondakinen kopurua bikoiztu egin da.

3. xedean (*Natura eta biodibertsitatea babestea*) ezarritako helburuei dagokienez, asko handitu da EAEko naturagune babestuen sarearen hedadura –dagoeneko, lurraldearen % 11 da–. Hala, aipatzekoa da, duela gutxi onartu dela Aizkorri-Aratz parkea sarean sartzea. Halaber, EAEk 57 lekuren zerrenda proposatu dio Europako Batasunari – lurraldearen azaleraren % 20 osatzen dute guztira–, Natura 2000 Sarean sartzeko.

4. xedearekin (*Lurralde-oreka eta mugikortasuna*) lotutako aurrerapenak mugatuak izan dira. Hala, 1990-2004 bitartean, garraio-sektorearen energia-kontsumoa % 88 handitu da, eta berotegi-efektuko gasen emisioak % 92 handitu dira, batez ere EAE mugaz haraindiko ardatza delako. EAEn motorrik gabeko garraioa sustatzeko estrategia bat garatzeko dago. Datu positibo gisa aipatu behar da 1998-2003 bitartean garraio publikoa erabiltzen duten bidaiarien kopurua % 29 handitu dela, batez ere Bilboko metroak aurrera egin duelako eta finkatu egin delako. Halaber, aipatzekoa da 60 udalerrri eta zortzi eskualde mugikortasun iraunkorreko planak garatzen ari direla.

5. xedean (*Klima-aldaketan duen eragina mugatzea*) emaitza kezkarriak lortu dira. 2004an % 20an gainditu da Kyotoko protokoloak Espainiarentzat ezarritako helburua. Nolanahi ere, Eusko Jaurlaritzak legegintzaldi berria hasi zenetik helburu hori ingurumen-politikaren agendaren tokirik gorenean ipintzea erabaki zuen. Gaur egungo ingurumen-arazo larrienari aurre egiteko European eta nazioartean egiten ari den ahaleginean anbizioarekin parte hartzeko aukera izango du EAEk; horretarako, asmo handiko erantzun integratua gauzatu nahi izan da Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren, Euskadiko Energia Estrategia 2010en, Ingurumenaren aldetik iraunkorra den Kontsumo Planaren eta, batez ere, Klima Aldaketaren aurkako Planaren –prestatzen ari dira– bitartez.

Finean, 2002-2006ko Ingurumen Esparru Programaren konpromisoen betetze-mailaren balantze orokorra positiboa da. Emaitza bikainak izan dira eta, batez ere, datozen urteetan iraunkortasunaren bidean aurrera anbizioz eta sendotasunez egiteko oinarriak finkatu dira. Nolanahi ere, martxan jarritako planak eta programak ez dira nahikoak izan ingurumen-adierazle batzuen joera negatiboa zuzentzeko (BEGak, partikulen emisioak, lurzorua kontsumoa).

2002-2006 IEPren esperientziatik abiatuta, 2007-2010 Ingurumeneko Esparru Programan **hobekuntza metodologiko** hauek sartuko dira **programa egiteko prozesuan**:

- Programa egiten parte hartzeko eta kontsultatzeko mekanismoak zabaldu eta indartuko dira..
- Esparru programaren beraren ingurumen-ebaluazio estrategikoa egingo da.
- Gobernuko gainerako sailekin eta tokiko administrazioekin koordinatzeko mekanismoak indartu egingo dira.
- Europako Batasunaren Garapen Iraunkorreko Estrategiaren berrikuspena eta Europako erreferentziazko hainbat herrialderen garapen iraunkorreko estrategiak xehetasun handiz aztertuko dira.
- Ingurumen-kalitateko helburuak zenbatetsi eta horiek gauzatzeko data jakinak esleituko dira.
- Helburuak hierarkizatu egingo dira.

- Ingurumen-politikako tresna berrien 'kostua/irabaziak' erlazioa aztertu egingo da.
- Gobernuak IEPn bere gain hartutako konpromisoak ingurumen-kalitatea hobetzeko jardueri dagozkie, batez ere, administrazioaren beraren barne-jarduerak kanpo utzita.
- Programan jasotzen diren konpromiso guztiek ibilbide-orri propioa eta segimendua eta kontrola egiteko arduradun bana izango dituzte.
- 2007-2010 IEPrekin eta Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planarekin integrazio-mekanismoak proposatuko dira.

3. EUROPAKO BATASUNAREKIN ETA NAZIO BATUEKIN BAT EGINDA

Ingurumenari eta Garapenari buruzko Mundu Batzordeak horrela definitu zuen garapen iraunkorra: etorkizuneko belaunaldien ahalmena arriskuan jarri gabe egungo beharrak asetzeko aukera ematen duen prozesua. Europako Batasunak bat egin zuen aho batez Nazio Batuen adierazpen horrekin, 1992an Rio de Janeiron egindako Lurraren Goi-bileran. 1997ko Amsterdamgo Itunari esker, garapen iraunkorra Europako Batasunaren eginkizun nagusi bihurtu zen. 2001ean, EBk Garapen Iraunkorraren Estrategia onartu zuen Gotemburgen. 2002an, Europako Batasunak aktiboki onartu zituen Johannesburgeko Garapen Iraunkorraren eta Ingurumenaren Munduko Goi-bileraren ondorioak.

Europako Batasunak konpromiso sendoa hartu du garapen iraunkorrarekin. EBren politika eta jarduera guztietan aplikatzen da printzipio hori. Horretarako, *garapenaren alde egin behar da hauek era orekatuan konbina daitezten: hazkunde ekonomikoa, prezioen egonkortasuna, lehiakortasun handiko merkatu-ekonomia soziala eta denontzako enpleguarekin konpromisoa duena, hezkuntza eta aurrerapen sozialaren maila handia eta ingurumen-kalitatearen babes- eta hobekuntza-maila handiak. Arlo horretan planteamendu proaktiboa izanda, Europako Batasunak berritzeko, hazteko eta enplegurako aukera berri bihur ditzake ingurumena babesteko eta gizarte-kohesioa lortzeko beharrak.* (Batzordearen komunikazioa, 2005/05/25)

Europako Batasunak duela gutxi amaitu du Garapen Iraunkorraren Estrategiaren berrikuspena, eta iraunkortasunaren hiru dimentsioko ikuspegia berretsi du –ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren dimentsioak–. Europako Batasunak (EB-25) strategiaren helburuak finkatu ditu; joera ez-iraunkor gutxi baina garrantzitsu batzuk hartu ditu helburu, eta, hala, ahaleginak metatzeko aukera dago –klima-aldaketa, osasun publikoa, pobrezia eta gizarte-bazterketa, populazioaren zahartzea, naturabaliabideen kudeaketa, garraioa eta lurraldea eta, azkenik, garapen iraunkorraren nazioarteko alderdiak–.

Aipatutako Garapen Iraunkorreko Estrategiaren ondorio politiko nagusietako bat da strategiaren beraren izaera osagarria berrestea, Lisboako Estrategiarekiko. 2000ko martxoan Lisboan antolatutako Europako Kontseiluan helburu hau ezarri zen: 2010erako Europako Batasuna munduko jakintzaren ekonomia dinamiko eta lehiakorrena izatea.

Garapen Iraunkorraren Estrategiaren eta EBren Ingurumen Alorreko Seigarren Ekintza Programaren baitan, **lehentasunezkoa da klima-aldaketaren aurka jardutea**. 1992an Rio de Janeiron egindako Lurraren Goi-bileran munduko ingurumen-erronketarako estrategia global baten beharra aldarrikatu zenetik hamahiru urtera, 2005eko otsailaren 16an, Kyotoko Protokoloa jarri zen indarrean 141 herrialdetan, berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak murrizteko.

Europako Batasuna aitzindaria izan da munduan, erronka global horri dagokionez. 2000ko martxoan, Klima Aldaketari buruzko Europako Programa onartu zuen Kyotoko Protokoloarekin bere gain hartutako konpromisoa betetzeko –2008-2012 bitartean berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak % 8 murriztea, 1990eko emisioak oinarri hartuta–. 2005eko urtarrilean, indarrean sartu zen berotegi-efektuko gas-emisioen baimenen salerosketari buruzko zuzentaraua, EAEko 62 enpresari eragiten diena, eta klima-aldaketari buruzko munduko politikan giltzarria izan da.

Kyotoko konpromisoak lortzeko, oso garrantzitsuak izango dira hainbat tresna, adibidez, mekanismo malguak eta, bereziki, garbi garatzeko mekanismoak (CDM). Tresna ekonomiko horiei esker alternatiba merke eta eraginkorrak izan ditzakete epe laburrean berotegi-efektuko gasen emisioak behar adina murrizteko arazoak dituzten herrialdeek.

Aldi berean, Nazio Batuen Ingurumen Programak (NBIP) ohartarazi du munduko ekosistemen % 60 degradatuta daudela edo era ez-iraunkorrean erabiltzen direla. 2002ko Johannesburgeko Goi-bilerak onartu zuen biodibertsitatea funtsezkoa dela gizakien ongizatearentzat, iraupenarentzat eta pertsonen osotasun kulturalarentzat. Onartutako erabakien arabera, dibertsitate biologikoa suntsitzeko joera txikitu egin behar da. **Europako Batasunak, berriz, lehentasun handia eman dio biodibertsitatearen kontserbazioari ingurumen-politikan, eta 2010erako biodibertsitatearen galera geldiarazteko helburua ezarri du.**

Testuinguru horretan, Europako Batasuneko estatu kideak garapen iraunkorreko estrategiak definitu eta garatzen joan dira azken urteotan. Erresuma Batua, Suedia, Flandes... anbizio handiko urratsak markatu dituzte, bai metodologikoak bai helburuzkoak. Garapen Iraunkorreko Euskal Ingurumen Estrategiak eta, bereziki, 2007-2010eko Ingurumeneko Esparru Programak –egun prestatzen ari dira– arretaz aztertu ditu esperientzia horiek, gure ingurumen-politika Europako Batasunarekin eta arlo horretan aurreratuen dauden Batasuneko herrialdeenarekin bat etor dadin.

4. EUSKADI: INGURUMENARI BURUZKO IKUSPEGI BERRIA 2020RAKO

4.1 ALDAKETAK EGITEKO ERAGILEAK

EAEk ahalegin handia egin du urte hauetan, Europako herrialde eta eskualde aurreratuenen pareko ingurumen-politika izateko. Ahalegin horrekin, pixkanaka hobetu egin dira arazo nagusiak, eta ikuspegi sozioekonomiko eta ingurumen-ikuspegi erabat berritu baten hastapenean egoten lagundu digu.

Asko aldatu da ikuspegia denbora gutxian. XX. mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaiera eta laurogeita hamarreko hamarkadaren hasiera bitartean EAEn izan zen krisi industrial sakonaren ondorioz, ekonomian, gizartean eta ingurumenean arazo larriak izan ziren; baina gure herrialdeak horiei aurre egin eta gainditu egin zuen egoera, ekoizpen-sistema erabat modernizatuz. Ikuspegi berritu horretan hauek izan behar dira kontuan: ekoizpen garbiaren filosofia barneratuta duen enpresa-sare indartsua; gure ekonomiaren eta gizartearen maila teknologiko handia; gure historiako giza kapital trebatuenaren baitan dagoen ezagutza; azken bi hamarkadekin alderatuta orain dugun enplegu-egoera ona; gure kapital naturala zaintzeko apustua, lurraldeko zati handi bat Natura 2000 Sarean sartuta baitago; gizarte zibilak natura eta ingurumena kontserbatzeko eta babesteko duen sentikortasun eta antolamendu handia.

Alegia, herrialde honek goi-mailako aktibo ekonomiko, teknologiko, instituzional eta pertsonalak ditu, eta horiek masa kritiko handia dute. **Aldaketaren eragileak dira**, alegia, hemen formulatutako ikuspegia eta aukera-ildo estrategikoa lortzeko bidean aurrera egiteko oinarria finkatu eta garatzen lagunduko dute.

1. Gure sare sozioekonomikoaren sentikortasuna handitu egin da ingurumena zaintzeari dagokionez.

- **Natura eta ingurumena zaintzeko ardura** EAEko herritarren laugarren lehentasuna¹ da, 2004ko Ekobarometroak egindako inkesten arabera.
- Kezka hori gure **gizarte zibil antolatuan** islatzen da. Izan ere, natura eta ingurumena zaintzeko sentikortasun handia dute herritarrek, adibidez, ibaiak eta kostaldea boluntarioki garbitu izan dituzte duela urte gutxi milaka herritarrek. Halaber, aipatzekoa da kolektibo sozial kontserbazionista eta ingurumena babesteko talde ugari daudela, eta iraunkortasun-maila handiagoa lortzeko konpromiso handia dutela.
- **Ingurumen-hezkuntzako** tresna kontsolidatu bat dugu –**Inguru Gela**-, eta interpretazio-zentro sarearekin batera, lan handia egiten ari da ingurumen-sentikortasunaren inguruan, azken urteotan.

¹ Lehenbiziko hiru lehentasunak hauek dira: aberastasuna eta enplegua sortzea, gatazka murriztea eta pobrezia txikitzea.

- Unibertitatean goi-mailako ingurumen-trebakuntza eskaintzen da.

2. Ingurumen-kapital nabarmena dago EAEko industria-sarean zein tokiko administrazioetan; alegia, ingurumenaren aldagaia eta horren balioak pixkanaka barneratzen joan dira, enpresa- eta administrazio-sarean

- **EAEko industria-sareak oso eboluzio positiboa izan du** ingurumenaren ikuspegitik, 1990etik aurrera. 1990 eta 2004 artean, industriak sortutako balio erantsi gordina % 68 handitu da. Denbora-tarte horretan, sektoreko berotegi-efektua eragiten duten gasen emisioak % 26 murriztu dira eta hondakin arriskutsuen sorrera % 13.
- EAEko ekonomiak **gainditu egin du Europako Batasunarekiko konbergentzia ekonomikoaren maila**. Gure herrialdearen ekonomiak, egun, 26.515 euroko barne-produktu gordina (BPG) du biztanleko eta urteko; Europako batezbesteko BPG baino % 13 handiagoa eta Espainiakoa baino % 27 handiagoa.
- EAEko enpresak **aitzindari** dira kalitate-sistemak, ingurumena kudeatzeko sistemak, erantzukizun sozial korporatiboa eta ekoizpen garbiarekin lotutako prozesuak ezartzeari dagokionez.
- Beste inon ez dago Euskadin dagoen **aparteko esperientzia kooperatiboa**; herrialdeko industria-talde nagusia barne hartzen du, eta erantzukizun sozial korporatiboaren mezua anbizioz eta aitzindaritzarekin barneratu da. Hori da, hain zuzen ere, industria guztia bide horretara eramateko eragilerik indartsuenetako bat.
- Ingurumenean garrantzia handia duten industria-sektoreekin **borondatezko ingurumen-hitzarmenak** sinatu dira, eta hori oso aktibo garrantzitsua da gure herrialdean. Gaur egun, bederatzi industria-sektorek sinatu dituzte horiek: zementua, kimika, altzairugintza, papera eta orea, burdin galdaketa, ez-burdinazko galdaketa, hondakin arriskutsuen kudeatzaileak, beira-zeramika-karea, gainazal-tratamenduak.
- Askok aurreratu da **Tokiko Agenda 21en eta Iraunkortasunerako Udalerrien Euskal Sarean, Udalsarea 21en**. Gaur egun, populazioaren % 98 Tokiko Agenda 21en programak martxan jarri dituzten udalerrietan bizi da. Euskadin dauden 251 udalerrietatik 138k hartzen du parte Udalsarea 21en.
- **Foru Administrazioek dagozkien garapen iraunkorreko estrategiak** jarri dituzte martxan, eta hiru alorrak biltzen dituzte: gizartea, ingurumena eta ekonomia.
- Parke eta naturagune babestuen sarea dago eta gero eta handiagoa da. Natura babesteko arloa asko hobetu da duela gutxi; izan ere, **57 eremu sartu dira Europako Batasuneko Natura 2000 Sarean, eta guztira EAEko azaleraren % 20 osatzen dute**. Bestalde, epe laburrean, Euskal Autonomia Erkidegoak

biodibertsitateari buruzko interpretazio-zentroa izango du Urdaibaiko Madariaga Dorrean. Europako Batasunean erreferente izateko helburua du.

- EAEn **ingurumen-politika integratu eta heldua dugu**. Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak IHOBE enpresa publikoa du –20 urteko esperientziarekin–. IHOBE aitzindaria da hainbat arlotan, hala nola: industriako ekoizpen garbia, lurzoru poluituak eta tokiko iraunkortasun-prozesuak udaletan.

3. Ingurumena babestearekin lotutako ezagutza, produktua eta zerbitzuak garatzeko aukera berriak aprobetxatzeko une aproposa da

- **Goi-mailako Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarea** dago. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean 70 zentro daude, eta horietan 2.500 ikertzaile ari dira guztira. Horietako hamaika zentro teknologiko bi korporazio handitan biltzen dira: Tecnalia eta IK4. EAEko unibertsitateetan ingurumen-berrikuntzarako ahalmen handia dute, bereziki EHUn eta Mondragon Unibertsitatean, estatuan aitzindari diren Ekodiseinu Gelak sortu baitituzte.
- EAEk ahalegin handia egin du **ikerketan, garapenean eta berrikuntzan** (I+G+B), Europako herrialde aurreratuenen parean jartzeko. EAEn, 2015ean BPGren % 3 erabiltzeko helburua jarri da.
- **IZAITE** elkarteak iraunkortasuna bultzatzeko sortu zen. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa garrantzitsuenak biltzen ditu, eta Euskalit eta IHOBE enpresa publikoak ari dira horrekin lankidetzan.
- **Energia berriztagarrien** arloan munduan aitzindari diren hainbat **enpresa** dago EAEn.
- **Ingurumenarekin lotutako enpresa-cluster** garrantzitsua, **ACLIMA**, dago EAEn. 87 enpresa eta erakundek hartzen dute parte. Clusterreko enpresetan 3.000 langile baino gehiago dauden ingurumen-lanekin zuzenean lotura dutenak.

4. Autonomia fiskal handia. Horri esker EAEn fiskalitate berde baten alde egin daiteke

- European beste inon ez bezalako **autonomia fiskala** dago EAEn. Hori abiapuntu bikaina da datozen urteetan fiskalitate berderanzko aldaketa egiteko –hainbat aldagairekin lotutako zergak murriztea, enplegua adibidez, eta ingurumenari kalte egiten dioten faktoreetan zerga-maila handitzea–. Aldaketa fiskal horrekin ekonomikoki saritu ahal izango dira hainbeste poluitzen ez duten praktikak eta kontsumoak, bai enpresatan, bai gizartean oro har. Halaber, natura-baliabideen erabilera optimizatu eta energia alternatiboak garatu ahal izango dira.

Horrek guztiak adierazten du **herrialde gisa jauzi handia egiteko moduan gaudela ingurumen-helburu nagusiak lortzeko bidean**. Hots, kondizio sozioekonomikoak onak dira garapen-kontzeptu berri bat lortzeko, ingurumenaren zaintza ezagutzaren eta berrikuntzaren Euskadiren funtsezko ikurra izan dadin –horren alde egin du Europako Batasunaren Lisboako Estrategiak–. Beraz, une aproposa da geure buruari galdetzeko zein garapen-eredu izan nahi dugun epe ertain eta luzerako.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak uste du gaur egun EAEk funtsezko aldaketa bat egiteko eta **ingurumena aukera-ildo estrategiko bihurtzeko –pertsonen bizikaltatea areagotzeko–** behar dituen oinarriak badituela.

Gobernu honen ikuspegi nagusia hau da: 2020an, datorren belaunaldiari, ingurumen-arazo nagusiak konponduta dituen EAE eskaintzea.

Aukera-ildo estrategikoaren arabera, 2020rako gure herrialdeak aitzindaria izan behar du fenomeno globalen aurkako borrokan (adibidez, klima-aldaketa), herrietako eta hirietako ingurumen-kalitatearekin kezkatu behar du, eta lurralde orekatu bat eta biodibertsitate babestu bat izateagatik ezaguna izan behar du. Industriadako, zerbitzuetarako, nekazaritzarako, etab. aplikazio berritzaileak sortzeko, ingurumenak nazioartean eragin duen kezka behar bezala aprobetxatu duen herrialdea izan behar du. Teknologia garbien garapenean, ekoeraginkortasunean, eraginkortasun energetikoan eta eskura dauden teknologia onenak ezartzen aitzindaria izan behar du, EAEko zentro teknologikoen sarea aprobetxatuz. Oro har, ingurumen-iraunkortasunaren ezagutzaren eta garapenaren mugan egoteagatik Euskal Autonomia Erkidegoa nazioartean aintzat hartzea nahi dugu.

4.2 2020RAKO ARDATZ NAGUSIAK

Bi gertakari oso-oso garrantzitsu dira aipagarri aukera-ildo estrategiko honen nazioarteko testuinguruan. Batetik, potentzia ekonomiko berriak sortu dira, bai eskualde-mailakoak bai mundu osokoak: India, Txina, Brasil, Hegoafrika... Nabarmen aldatu du potentzia ekonomiko horien sorrerak nazioarteko lehiaren dinamika. Bestalde, irizpide teknologiko tradizionalak eta guztiz berriak elkarrekin erabiliz ari dira industrializatzen herrialde horiek.

Bien bitartean, klima-aldaketak eta petrolioaren **garestitzeak nazioartean eragiten duten kezka dela eta**, asko haziko da datozen urteotan ekoeraginkortasuna, energia-eraginkortasuna eta energia-sorrera sakabanatua oinarri dituzten **teknologiaren eskaria**. Joera horren adibide dugu energia eolikoak nazioartean izan duen hedapena. EAEren irizpideek **sormena eta lider-sena** izan behar dute testuinguru orokor berri horren **aukerei ekiteko**.

Lau ardatz nagusi dituzte ikuspegi eta aukera-ildo estrategikoak, guztiak ere 2020a arteko planifikazioan ere zehaztuak. Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako administrazioen eginkizuna da ardatz edo helburu horiek lortzen saiatzea. Horretarako, baina, gure herriko eragile sozial eta ekonomiko guztien laguntza behar dute. Ardatz horiek dira, hain justu ere, Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren mamia. 2007-2010 Ingurumeneko Esparru Programa (prestatzen ari gara) izango du lagungarri Estrategiak. Bitarteko zenbait helburu –behar bezala kuantifikatuak eta hierarkizatuak– ditu Esparru Programak.

1. ardatza: etorkizuna bermatzea, klima-aldaketari aurre egitea eta aldaketa horren ondorioetarako prestatzea

Nazioarteko komunitateko beste zenbait herrialdek bezala, Euskadik ere klima-aldaketari aurre egitea erabakia du. Hona hemen nola: (1) politika energetiko eraginkorren eta energia berriztagarrien alde eginez, (2) mugikortasun orekatuagoa bultzatuz, hau da, trenbidea, itsasoko garraioa eta garraio publikoa sustatuz (3) garraio-eskariaren kudeaketa integralerantz joz (4) kontsumo-plan iraunkorra sustatuz herritar guztien artean (5) berotegi-efektuko gasen isurketaren truke karbono-hustubideak sortuz eta baso-berritzeak bultzatuz bai Euskadin bai hemendik kanpo.

Berebiziko garrantzia izango dute datozen urteotan energia-ereduari eta klima-aldaketari buruzko eztabaidak eta erabakiek. Epe laburrera, Kyotoko Protokoloan jasotakoak bete egin behar ditu Euskadik, eta argi eta garbi eman behar die bizkarra ingurumen-desafio orokor horrekiko etsipenezko jarrerari. Helburu hori iristeko abiapuntua ez da positiboa²; horregatik, hainbat ahalegin uztartu eta garatu behar dira betiere hurrengo urteotan, gogo biziz eta aitzindaritza politikoarekin. Horra Klima Aldaketaren Euskal Bulegoaren eta Klima Aldaketaren aurkako Euskal Planaren helburua (plana prestatzen ari gara orain).

² 1994-2004 bitartean, berotegi-efektua eragiten duten gas nagusien zuzeneko isurpenak % 35 handitu ziren EAEEn.

2020rako, berriz, eraginkortasun handiko energia-eredu baterantz jo behar du Euskadik, hidrokarburoekiko horrenbesteko mendekotasunik ez duen eta energia berriztagarriak gogotik erabiltzen dituen eredurantz, BEGen emisioak arras murrizteko erreferentzia-urtearekiko (1990). Bestalde, garraio-politikari dagokionez, sektore horrek eragiten duen inpaktu kaltegarriak gutxitu egin behar dira, batez ere berotegi-efektuko gasen emisioak eta gure herri eta hirietako airearen kalitatea hondatzen duten emisio poluitzaileak. Horretarako, garraio publikoaren erabilera masiboranzko trantsizioa (ordenatua, baina gogotsua) egin behar da EAEko hiru lurralde historikoetan, eta errepedekoak ez diren garraio bideak sustatu behar dira.

2. ardatza: gure ondare naturala sendotzea, gure biodibertsitatea babestea

Ezinbestekoak ditugu baliabide naturalak bizirik irauteko, gure nortasun-ezaugarriei eta gure bizimoduari eusteko. Berariazko ekimenen bidez babestu behar dira baliabide horiek, eta gure gizarteko balio-zerrendako goi-lekuetan ipini behar dugu natura, gizartea bera izan dadin naturaren babesle eta zaindaria.

Europako Batasunaren helburuekin bat etortzeko, **2010erako gerarazi beharra daukagu biodibertsitatearen galera gure herrian**. Helburu hori lortzeko, sendotu egin behar da EAEko biodibertsitatearen behatoki-sarea; Natura 2000 Sareko guneak behar bezala kudeatu behar dira, eta Sarea sendotu; zabaldu egin behar da babestutako naturaguneen sarea, eta egoki kudeatu; hezeguneak berreskuratzeko programa bultzatu behar da; Madariaga Dorretxea-Urdaibaiko Biodibertsitatearen Zentroa sortu eta kudeatu behar da, eta biodibertsitateari buruzko sentsibilizazio-, informazio- eta trebakuntza-lanarekin jarraitu.

Horrez gain, Lurzoruaren Poluzioa Prebenitu eta Zuzentzeko Lege onartu berriaz (1/2005 Legea) baliatu behar dugu **eragile publiko eta pribatuek lurzoru poluituen leheneratzea eta balioestea sustatzeko**, merkatu-tresnen bitartez. Aurreikuspenen arabera, konpontze-bidean oso aurrera eginda behar du 2020rako lurzoru poluituen arazoak, hau da, ingurumenarekiko oso begirune eskasa izan zuen iraganeko jarduera industrialak utzi zigun herentzia ez diogu utzi behar hurrengo belaunaldiari.

Egiteko dagoen Uraren Legea eta Uraren Euskal Agentzia Berria ere aprobe txatu behar ditugu Euskadi aitziindari izan dadin **uraren kalitatea** estandar ekologiko, ekonomiko eta sozialetara **egokitzen**, Europako Uraren Zuzentarauaren estandarretara alegia. 2015erako, kalitate handiko egoera fisiko, kimiko eta ekologikoan egon behar dute EAEko ibai, estuario, kostalde eta lurpeko urek, eta bermatu egin behar da ura ekosistema integral bezala kudeatuko dela.

Halaber, **lurraldea ere zaindu egin behar da, gure herriaren ondare naturala gorde egin behar dugu, iraunkortasun-irizpide sendoarekin** betiere. Gure ondare naturalaren funtsezko osagaia (eta eskasa) dugu lurraldea. Gizartearen prozesu ekonomikoan, kapital naturala giza kapital bihurtzen da (urbanizazioak, garraio-azpiegiturak, industrialdeak...), baina ez dira gainditu behar gehiegizko artifizializazio-mugak.

Azkeneko urteotan, lurraldearen artifizializazio-prozesu gogorak jasan ditu EAEk. Prozesu horiek direla eta, higatu egin da gure ondare naturala. Horrenbestez, intentsitate txikiagoarekin erabili behar da lurzoru naturala. Lehendik urbanizatutako lurzoruen berrerabilpena lehenetsi behar dute hirigintza-planek, azpiegitura ekonomiko berriek, garraio-azpiegiturak, ekipamenduek eta abarrek, lurzoru natural gehiago erabiltzearen orde. Zorrotz kontrolatu behar dira lurraldearen artifizializazio-prozesuak.

Ingurumen-iraunkortasunik izango bada, ondare naturalaren halako maila jakin batzuei eutsi beharra dago, hots, lurralde jakin bateko ekosistemen funtzionamenduari eta kalitateari eutsi egin behar zaie. Horrenbestez, ezinbestekoa da ahalik eta gehiena saihestea ondare naturalari nabarmen eragiten dioten jarduera antropikoak (baso naturalen galera, kostalde-galera, biodibertsitate-galera, ibai- eta akuifero-galera, nekazaritzako sistema tradizionalen galera...). Bestalde, dagoeneko ondare naturalaren galera eragin duten jardueren ordaina eman behar da, hau da, ondare naturala areagotu edo hobetu egin behar da.

3. ardatza: gure hiriguneen ingurumen-kalitatea hobetzea pertsonen bizi-kalitatea zaintzeko

Ingurumen-kalitatea pertsonen bizi-kalitatearen elementu nagusizat ezartzeko, kontuan hartu behar dira Europako Garapen Iraunkorrerako Estrategiako alderdiak, esaterako, pobrezia eta baztertzeko sozialaren aurkako borroka, eta populazioaren zahartzea. **Herritarren osasuna zaintzea ingurumenak eragindako gaixotasunei dagokienez, hiri-inguruneen ingurumen-kalitatea hobetuz eta pertsonen, naturaren eta lurraldearen erabileraren artean harreman orekatua sustatuz.** Osasuna zaintzeko dagoen kezka, bereziki sektore ahulena (haurrak eta zaharrenak), ingurumenari buruz gizartea sentsibilizatzeko bektore nagusi bihurtzear dago hurrengo urteetan. Europako Batasunean dagoeneko entzuten dira alertak haurren arnas-arazoei buruz, zenbait hiritako poluzio atmosferikoa eraginda, edo zarata-maila handiegia eragindako arazoei buruz.

Hurrengo urteetan, tinko egin behar dugu aurrera gai hauetan: poluzioa eta airearen kalitatea –batez ere, partikulekin eta ozono troposferikoarekin lotuta, giza osasunean duen eraginagatik–, zarata, zirkulazio-pilaketa, hirigunetan eta hiri-inguruetan parke eta berdegune zabalak izatea, etab. Horretarako, jarduera sinergikoak eta garapen iraunkorreko egiturak bultzatuko dira hirietan (garraio iraunkorreko proiektuak, klima-aldaketa, lurzoru poluituak berreskuratzea, energia berriztagarria, ingurumen-aktiboak baloratzea, etab.). Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareak ezinbesteko zeregin izan behar du asmo handiko helburu hau lortzeko ahaleginean.

4. ardatza: euskal ekonomia iraunkorrerantz aurrera egitea. Kontsumo eta ingurumen-ekoizpen iraunkorrerantz aurrera egitea

Kontsumo- eta ekoizpen-ohiturak alda daitezten sustatzea eredu iraunkorrerako baterantz eginez, gero eta handiagoa den pertsonen ingurumen-sentikortasuna eta gure enpresa-sarearen ingurumen-jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa aprobetxatuz. Norabide horretan, ezinbestekoa da egungo enpresen **lehiakortasun-elementu gisa erabiltzea ingurumena** eta motor gisa erabiltzea euskal ekoizpen-sarea teknologikoki aurreratua.

dauden eta ezagutza gehiago duten sektoretarantz dibertsifikatzen lagunduko duten produktu eta zerbitzu berriak sortzeko.

Ingurumenarekin lotutako enpresak sortzen laguntzea. Ingurumena bultzatzea ekoizpen-sarea hurrengo eremu hauetara dibertsifikatzen lagunduko duten enpresaburu eta enpresa berriak sortzeko faktore erabakigarri gisa: lurzoru poluituak garbitzea, energia berriztagarriak, banatuta energia, natura zaintzea eta baloratzea, etab.

Ekoeraginkortasunean salto bat egitea, kapital sozial trebatuago batean. Gehiago eta hobeto ekoizteko gai izatea baliabide natural gutxiagorekin, energia gutxiagorekin, ur gutxiagorekin, lur gutxiagorekin eta hondakin gutxiagorekin. Horretarako, funtsezkoa da gure herrialdearen kapital sozialaren trebakuntza- eta ezagutza-maila hobetzea. Horrez gain, merkatu-tresna berritzaileak abian jarri behar dira, enpresetako eta erakundeetako eragileak motibatuzeko portaera egokien eta ingurumena errespetatzen duten portaeren inguruan.

EAEko Zientzia eta Teknologia Sistema Ierro Egonkor batean eta epe luzera ingurumenaren alorrean aplikatutako ezagutza sortuko duen Ierroan integratzea. Ingurumen-ikerkuntza bultzatzea ingurumeneko eremu nagusien inguruan (klimaldaketa, lurzorua babestea, biodibertsitatea, etab.) ezagutza garatzeko eta enpresa-sarea sortzeko. EAEko Enpresen Lehiakortasuneko eta Gizarte Berrikuntzako Estrategiak jasotzen duen bezala, berrikuntza da BPGren hazkundera eta ingurumen-inpaktuen hazkundera bereiz ditzakeen bidea.

Laburbilduz, merkatua iraunkortasunerantz bideratzeko giltzarria da eskaintzatik zuzendutako ekonomiatik eskaerari arreta gehiago jartzen dion ekonomiara eboluzionatzea, eta horrek eskaintza errazten duten azpiegituren sindrometik ateratzea adierazten du.

4.3 IRAUNKORTASUNA LORTZEKO BIDEAN AURRERA

Gure herriak hemen adierazitako ikuspegia, erronka estrategikoa eta ardatzak lortzeko aurrera egin ahal izateko, Administrazio Publikoaren kudeaketari dagozkion beste bi konpromiso handiri buruz hausnartu behar dugu.

Lehena, garapen-bidean dauden herrialdeei zuzenduta dago, **euskal gizartearen ingurumen-erantzukizunaren kuota nazioartean onartuz.** Eusko Jaurlaritzak garapen iraunkorraren aldeko konpromisoa hartu du eta, oro har, hori sustatzeko prest dago, informazioa eta esperientzia trukaturik. Eusko Jaurlaritza izan da "Garapen Iraunkorraren aldeko Eskualdeetako Gobernuen Sarea"ren sortzaileetako bat, eta egun bere apustua berretsi du Sarearen kolehendakaritza eta idazkaritza teknikoa hartzean. Nazioarteko lankidetzaz-lerro garrantzitsu bat ireki da Latinoamerikako Ingurumenerako Nazio Batuen Programarekin zerbitzuen eta produktuen ekodiseinuan ekintzak garatzeko adostutako lankidetzaz-hitzarmenaren bitartez. Azkenik, gure erantzukizuna eraginkor egiteko ekintzen beste adibide da Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak CO₂-aren emisioak konpentsatzeko Kenyan zuhaitzak landatu izana Green Belt Movement erakundearen laguntzaz.

Bigarren konpromiso handiak **Gobernantzaren bikaintasuna lortzera** bideratu behar gaitu, kalitate hauek sistematikoki aplikatuz: epe luzerako ikuspegia; Administrazioaren beraren jarduerak eredu izatea; aitzindari sendo eta iraunkorra izatea; etengabeko hobekuntzarantz bideratzea nazioarteko esperientziarik aurreratuenekin konparatuz; herrialdearen ingurumen-kalitatea hobetzea eta herritarren bizi-kalitatean aurrera egitea adierazten duten emaitza nabarmenetara bideratzea; espiritu eraikitzailea, kritikoa eta norbere buruarekin zorrotza dena, eta bere buruaz harrotzen ez dena, bultzatzea; eta, azkenik, Administrazio Publikoaren ekintza, herritarrenganako zerbitzu gisa, berriz baloratzea. Laburbilduz, ingurumen-politika gizartearekin sinatutako kontratu gisa ulertzea, horren oinarri izanik gardentasuna, parte-hartzea, emaitzarako bideratzea, kontu-ematea eta, neurri handi batean, politika, plan eta programa publikoen arteko koherentzia, haietan ingurumen-alderdiak sartuz.

Ingurumena erabat zeharkakoa da. Zerikusia du gure etxeek behar duten energiarekin, merkantziak banatu ahal izateko eta pertsonak lekualdatzeko eraikitzen ditugun garraio linealekin; zerikusia du kontsumitzen ditugun jakiekin, kontserbatzen ditugun paisaiekin, sortzen ditugun hondakinekin, eraldatzen ditugun materialekin. Beraz, Gobernuaren baitan kompetentziak antolatzeko eredu tradizionala gainditzeko aurrerapausoak eman behar dira, koordinazio-mekanismo indartsuak eta integrazioa sortzeko, politikak egitean eta exekutatzean ingurumen-alderdiak sistematikoki sartzen dituzten instituzioen barnean. Horregatik, begien bistakoa da energiaren, zientziaren eta teknologiaren, azpiegituren eta garraioaren politika garrantzitsuek edo sustapen ekonomikoak eta enpresen lehiakortasunak erabakiko dituztela, neurri handi batean, etorkizuneko ingurumen-aktiboak eta -pasiboak.

Horregatik, ingurumen-kalitate oneko gizartea izateko aurrerapausoak eman nahi badira, ezinbestekoa da sektore ekonomikoak aktiboki lankidetzan aritzea, instituzio guztiak zereginera biltzea eta eragile sozialei eta ekonomikoen taldea mobilizatzea.

I. ERANSKINA: 2002-2006 IEP-KO KONPROMISOEN BETETZE-MAILA

LABURPENA

Garapen Iraunkorrerako Euskal Ingurumen Estrategiak abiarazitako bide amesgarriko lehen zedarria da 2006. urtea. 2002-2006 aldian, etorkizunari aukeren arabera eta herri-erronka gisa erantzuteko parada ematen diguten oinarriak sendotu ditu euskal administrazioak.

Luzea da oraindik datozen belaunaldiei inguru garbia, osasungarria eta gure nortasunarekiko begirunea duena eskaintzearren ibili beharreko bidea. Hona hemen azken lau urteetan egindako lanaren laburpena.

Ingurumen-xedeei buruzko konpromisoen alorrean lortutako emaitzei dagokienez, honela labur daiteke egoera:

2006rako konpromiso programatikoak	Egoera				Guztira 2002-2006an
	Hasi gabeak	Hasita	Aurreratuta	Eginda	
Ur, aire eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea	1	2	9	10	22
Natura-baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua egitea			5	7	12
Natura eta biodibertsitatea sustatzea: sustatu beharreko balioa	3	1	11	12	27
lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua	2	5	4	7	18
klima-aldaketaren gaineko eragina mugatzea		1	4	5	10
Konpromiso programatikoak, guztira	6	9	33	41	89
%	% 7	% 10	% 37	% 46	

2002-2006rako konpromiso kuantitatiboak	Egoera				Guztira 2002-2006an
	Zailak ☹	Gertagarriak ☺	Egin daitezkeenak ☺	Daturik ez	
Ur, aire eta lurzoru garbiak eta osasungarriak izan ditzagun bermatzea	1		5		6
Natura-baliabideen eta hondakinen kudeaketa arduratsua egitea.	2	5	5	1	13
Natura eta biodibertsitatea sustatzea: sustatu beharreko balioa			2		2
lurralde-oreka eta mugikortasuna: ikuspegi bateratua	2	1	4		7
Klima-aldaketan duen eragina mugatzea			1		1
Konpromiso kuantitatiboak, guztira	5	6	17	1	29

%	% 17	% 21	% 59	% 3
---	------	------	------	-----

2002-2006 IEPan jasotako **Aldaketarako kondizioei** buruzko konpromisoen alorrean lortutako emaitzei dagokienez, berriz, honela labur daiteke egoera:

2006rako konpromiso programatikoak	Egoera				Guztira 2002-2006an
	Hasi gabeak	Hasita	Aurreratuta	Eginda	
Ingurumen-aldagaia beste politika batzuetan kontuan hartzea			2	4	6
Indarrean dauden legeak eta horien aplikazioa hobetzea	2	3	4	6	15
Merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea			2	2	4
Herritarrak, Administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzukizunkide bihurtzea, eta haien jokabideak IRAUNKORTASUN handiagoari begira aldatzea	2	3	3	9	17
Ingurumenari buruzko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzea				3	3
Konpromiso programatikoak, guztira	4	6	11	24	45
%	% 9	% 13	% 24	% 53	

2002-2006rako konpromiso kuantitatiboak	Egoera				Guztira 2002-2006an
	Zailak ☹	Gertagarriak ☺	Egin daitezkeena ☺	Daturik ez	
Ingurumen-aldagaia beste politika batzuetan kontuan hartzea			2		2
Indarrean dauden legeak eta horien aplikazioa hobetzea		1			1
Merkatuak ingurumenaren alde lan egin dezan bultzatzea	1	1	2		4
Herritarrak, Administrazioa eta enpresak gaitzea eta erantzukizunkide bihurtzea, eta haien jokabideak iraunkortasun handiagoari begira aldatzea		2	1		3
Ingurumenari buruzko ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza bultzatzea		3	1	1	5
Konpromiso kuantitatiboak, guztira	1	7	6	1	15
%	% 7	% 47	% 40	% 7	

ANALISI XEHEA

Ondoko tauletan adierazi dira 2002-2006 IEPko konpromiso guztien analisiak (M: Ingurumen Xedea; C: Konpromisoa edo beharrezko baldintza)

1. XEDEko konpromisoen ebaluazioa




2002-2006 epean aurreikusitako konpromisoak

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurreratu	Buka	
1X03K	Emisio poluitzaileen Europako inbentarioko (EPER) poluitzaileen kontrolerako eta prebentziorako estrategia industria-sektorean.			X		Emisioen eta poluitzaile-transmisioen Europako Erregistroarentzako (E-PRTR) datuak biltzeko kanpaina diseinatzea eta garatzea. - Datara arte bildutako informazioak erakusten dituen joeren analisia. - AAI poluitzaileak lehenesteko estrategia
1X04K	Behe-maiztasuneko (50 Hz) eremu elektromagnetikoen eta irrati-maiztasunen esposizio-mailen gutxi gorabeherako azterketa eta haiek murrizteko plana egitea	X				
1X05K	Zarata-maila handien eraginpean dagoen populazioari buruzko azterketa-diagnostikoa, eta haiek gutxitzeko estrategia			X		
1X07K	Substantzia arriskutsu nagusiak ordezkatzeko estrategia			X		-Gai arriskutsu jakin batzuek EAEn eragindako poluzioari buruzko informazioa lantzea (2002-2004). Gai fitosanitarioen EAEko erabileraren azterketa - PM10 partikulentzako Ekintza Planak garatzen ari dira
1X08K	Produktuetan ingurumen-irizpideak erabiltzea sustatzeko programa (Bizi-zikloaren Analisia).				<input checked="" type="checkbox"/>	- 33 enpresa ekodiseinuko ekintza-zerbitzueta garatzea. - 221 enpresak hartu dute parte informazio-ekintzetan - Ekodiseinuaren Dokumentazio Zentroa diseinatzea eta abiaraztea.
1X11K	Iturri finkoetatik sortutako partikula-emisioen inbentarioa eta kontrol-estrategia bat egitea.				<input checked="" type="checkbox"/>	- Ekintza Planetan parte hartzea. - 2003ko inbentarioa eguneratzea
1X12K	Airearen Kalitatea Zaintzeko Sarearen datuak Internet bidez jakinaraztea.				<input checked="" type="checkbox"/>	www.ingurumena.net helbideko "Airea eta zarata" ataleko "eguneroko informazioa" eremuan daude datuak eskura
1X13K	NOx, NH3 eta CO emisioen inbentarioa eta emisio horiek kontrolatzeko estrategia egitea.			X		- 2003ko inbentarioa eguneratzea
1X14K	Poluitzaile atmosferikoen immisioaren muga-balioak edo alerta-atalaseak gainditzeko arriskua murrizteko planak egitea.			X		- Amaiera-fasean daude alerta-protokoloa eta udal mailako ekintza-planen taxuketak.
1X15K	20.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan, airearen kalitatearen berri ematen duten informazio-panelak jartzea eta udalerrietan beste hainbat informazio-tresna erabiltzea.		X			
1X16K	Euskal Autonomia Erkidegoko Barruko Arroen Plangintza Hidrologikoa			X		- 33/2003 Dekretua argitaratzea izan da Barne Arroen Plangintza Hidrologikoa behin betiko erredaktatu aurreko azken urratsa. - Plana taxutzeko behar den oinarriko dokumentazioa taxutzen jarraitzen dugu. Alegia: eskaeren analisia, baliabideen eskuragarritasuna, urak har ditzakeen lurren azterketa, eremu kalteberak, ur-masen karakterizazioa, saneamenduaren eta horniduraren planifikazioa.

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
1X17K	2.000 biztanletik gorako herrietan saneamendu-azpiegiturak izatea 2006rako.			X		2005. urtearen amaieran, biztanleriaren % 87k zuten saneamendurako azpiegitura
1X20K	Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru Poluituen Plana			X		Planaren oinarriak idatzita, azken adostasunaren zain.
1X21K	EAEko Lurzoru Poluituen Legea				<input checked="" type="checkbox"/>	Otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzoruaren poluzioa, lurzorua ez poluitzeko eta poluitutakoa garbitzekoa.
X122K	Higadurak lurralde osoan duen garrantzia zehatz-mehatz ezagutzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	Eginda dago "Euskadiko Lurzoruaren Higadura Mapa" dokumentua. EAE osoko lurzoruaren higadura hidrikoaren (laminarra zein erreka bidezkoa) kartografia egitea du helburu.
1X23K	EAEko higadura kontrolatzeko eta prebenitzeko plana egitea eta higadura-prozesuek kaltetutako eremuak konpontzea.		X			Indarrean hasi da EAEko Nekazaritzako Politika Bateratuaren esparruko laguntza zuzenekin zerikusia duen ekobaldintzazkotasuna aplikatzeari buruzko urtarrilaren 25eko 20/2005 Dekretua.
1X25K	Ingurumenean luze irauten duten substantzia kimikoen esposizioak, dietaren bidez hartuta, osasunerako duten arriskua balorizatzeko sistema.				<input checked="" type="checkbox"/>	Dieta Totala hilero aztertzen da
1X27K	Eragin handiena duten elikagaien toxiinfekzioen prebentzio eta kontrolerako plan integrala martxan jartzea, produkzio primarioetik hasi eta kontsumitaileraino				<input checked="" type="checkbox"/>	Ukitutako sektore guztietako proba analitikoak berdinu egin dira, eta kontsumitzaileen gaineko eskuhartzea planifikatu da. Elikatze Arriskuen Analsiaren eta Alerten Kudeaketaren protokoloak abian ipini dira.
1X28K	Gizakientzako elikagaien etiketatzea ezartzea; horniketean erabilitako ekoizpen-modua adierazi beharko du.				<input checked="" type="checkbox"/>	




IX: Ingurumen Xedea

K: Konpromisoa

	Konpromiso KUANTITATIBOAK	Lortzeko aurreikuspena	Oharrak
1X06K	2006rako, ingurumena eta nekazaritza bateratzen dituen 55.000 hektareako azalera lortzeko aukera emango duten ingurumeneko eta nekazaritzako neurriak sustatzea eta lurralde mailako politika espezifikoak ezartzea. (4. xedean ere jasota dago konpromiso hau).		Aurreko urteen aldean atxiki egin da nekazaritza eta ingurumeneko neurrietara lotutako azalera.
1X18K	EAEEn ibilgu publikoetara eta lurraren eta itsasoaren arteko eremuetara botatako poluitzaile-karga totalak 2006an, 2001ekin alderatuta, % 50 murriztea (% 60 Gipuzkoan; % 50 Bizkaian; % 20 Araban).		2005eko adierazleak: Zn, Cu, Hg, N eta P poluitzaileek % 50 baino karga txikiagoa eman dute.
1X24K	2006rako EAEko poluitutako lurzoruko publikoaren % 20 berreskuratzea, 2001. urtea oinarritzat hartuz.		Onetsi egin da otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzoruaren poluzioa, lurzorua ez poluitzeko eta poluitutakoa garbitzekoa. - 2005eko ingurumen adierazleen arabera, 1990 eta 2004 bitartean 32 lursail publiko berreskuratu dira (helburua 34 lursail berreskuratzea zen).












Konpromiso jarraituak

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
IX09K	Laneko arriskuen prebentzioa, higiene industrialia eta ingurumena aintzat hartzen dituzten kudeaketa-sistemak bultzatzea.			X		-Ingurumen Kudeaketa Sustatzeko Industrientzako Programa 2003-2006 egin da. -Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeatzeko Sistema ezartzeko diru-laguntzak eman dira.
IX19K	Lurzoru poluitu bati erabilera bat esleitzen zaionean, hirigintza-kudeaketaren eremuan sartutako lurzoru osoari ingurumenaren aldetik irtenbide egokia ematea.				<input checked="" type="checkbox"/>	Aurreikusitako ekintza guztiak eginda daude, "Lurzorua polui dezaketean jarduerak egiten diren EAEko lekuen inbentarioa" eguneratzea izan ezik, lur industrialei dagokienez.
IX26K	Hausnarkariak elikatzeke abere-irinak erabiltzea behin betiko galarazita egongo direla zaintzea				<input checked="" type="checkbox"/>	Baserri eta ustiategietan ikuskapenak egin dira eta abereen elikadura kontrolatzeko Plan koordinatuan aurreikusi baino pentsu-lagin gehiago hartu dira. Hausnarkariak elikatzeke pentsuetan ez da abere-iririk hauteman.

	Konpromiso KUANTITATIBOAK	Lortzeko aurreikuspena	Oharrak
IX10K	Substantzia arriskutsuen ekoizpena, erabilera, emisioak eta isurketak ezabatzea, nazioarteko zientzia-komunitateak erabaki eta Europako araudietan txertatu ahala.		-Gai arriskutsu jakin batzuek EAEn eragindako poluzioari buruzko informazioa lantzea (2002-2004). Gai fitosanitarioen EAEko erabileraren azterketa - Borondatezko hitzarmenak sinatzea eta jarraitzea, eskura dauden hobekuntza teknologikoen definizioa eta guzti. - Teknologia Garbien Euskal Zerrenda Kudeatzea
IX02K	Baso-azalerari eustea eta/edo handitzea, airea arazteko, uraren erregimen hidrolorikorako eta higadura kontrolatzeko eragiten dituen onurengatik.		Euskadiko Basogintza Elkarleen Konfederakundearekiko eta Europako hegoaldeko basozaleen batasunarekiko lankidetzak-hitzarmenak berriro egin dira.
IX10K	Europako Batasunak inguruneke airearen (immisioa) kalitateari buruz ezarritako helburuak betetzea.		2005eko adierazleak: 2004. urtean zehar okerrera egin du EAEko airearen kalitateak, 14 egunetan izan baita hura txarra nahiz oso txarra.

Konpromisoen ebaluazioa: 2. XEDEA**2002-2006 epean aurreikusitako konpromisoak**

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
2X05K	2002: energia berriztagarria sortzeko hainbat instalaziotatik datorren elektrizitatea sarera konektatzeko bideak jartzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	
2X07K	2003: kostu guztiak barne hartzen dituen uraren merkatu-prezioa proposatzea, eta kontsumo txikienak laguntzea eta kontsumo handienak zigortzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	Konpromisoan adierazitako printzipio beren arabera ezartzen du uraren lege-proiektuak uraren erregimen ekonomiko-finantzarioa. 2004/10/05ean onesti zuen Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak proiektua, eta une honetan Eusko Legebiltzarrean dago.
2X07K	2003tik aurrera: ura aurreztu beharraz herritarrak kontzientziatzeko kanpainak egitea alor guztietan.				<input checked="" type="checkbox"/>	
2X10K	Herri-lanetan eta azpiegiturretan material birziklatuak erabiltzea sustatzeko politika martxan jartzea.			X		- Altzairutegietako zepa eta birziklatutako gaiak erabiltzea tokiko erakundeei eman beharreko diru-laguntzen bidez sustatzea. - Halako hondakin-mota batzuk eraikuntzan erabiltzeko AMATEUR proiektua sustatzea. - Borondatezko hitzarmenak kudeatzea
2X11K	Euskal Autonomia Erkidegoko Hiri-hondakinen Plana			X		Euskal Autonomia Erkidegoan hiri-hondakinen kudeaketaren plangintza egiteko Arzetarauak, eginda.
2X14K	Etxeetako olio erabiliak (jatekoak) bereizita jasotzeko zerbitzua antolatzea 30.000 biztanletik gorako udalerrietan.				<input checked="" type="checkbox"/>	
2X15K	2002: hondakin Arriskutsuen Plana eta sortzen ari diren korronteak (bizitza baliagarria amaitutako ibilgailuak, eraikuntza eta tresna elektrikoak eta elektronikoak).				<input checked="" type="checkbox"/>	
2X20K	2003: industria eta Merkataritza Jatorriko Hondakin Ez-arriskutsuen Plana.			X		Hondakin Ez-arriskutsuen Plana EAEko Hondakinen Esparru Planean integratuko da.
2X21K	2003: osasun-jarduerek sortutako hondakinak kudeatzea horiek sortzen dituzten zentro guztietan, kudeaketa aurreratuaren printzipioen arabera.			X		- Osasun-jarduerek sortutako hondakinak tratatzeko instalazioari baimena ematea eta abian ipintzea. - Ez da erdietsi 2005erako aurreikusitako ehunekoa kudeaketa-plana duten zentroen kopuruari dagokionez. Zenbait sektore gelditzen dira oraindik iristeko.
2X22K	Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Hondakinen Prebentziorako eta Kudeaketarako Plana.			X		EAEko nekazaritza-eta abeltzaintza-hondakinen inbentarioa egin da. Nekazaritza-eta abeltzaintza-hondakinen kudeaketa-plana zirriborro-fasean dago.

	Konpromiso KUANTITATIBOAK	Lortzeko aurreikuspena	Oharrak
2X02K	Per capita Material Behar Totala (MBT) 1998ko mailan mantentzea 2006an.		2005eko adierazleak: 1990 eta 2003 bitartean %24 handitu da MBT. 2000tik aurrera, materialen kontsumoa egonkortu egin da.
2X09K	2006rako, aurretik tratatu ez diren hondakinik ez isurtzea, salbuespen honekin: teknikoki bideraezinak diren tratamenduak behar dituzten hondakin geldoak eta hondakin-kantitatea edo gizon-emakumeentzat nahiz ingurumenentzat dituzten arriskuak murrizten laguntzen ez duten tratamenduak behar dituzten hondakinak.		- Hiri Hondakinak kudeatzeko esparru-planifikaziorako Jarraibideak onetsi dira -Hondakin Ez-arriskutsuen Plana amaitu da -Hondakin Ez-arriskutsuen Inbentarioa amaitu da - Inbentario bateratua amaitu da. - EAEko Hiri Hondakin Inbentario historikoa.
2X12K	Hiri-hondakinen arriskugarritasuna murriztea, etxeetako hondakin arriskutsuen gaikako bilketa areagotuz, 2006rako, pila-zatien, berunezko baterien eta lanpara fluoreszenteen kantitatea 900, 5.000 eta 130 t/urte izan dadin, hurrenez hurren.		Hondakin Arriskutsuak biltzeko sistema sinplifikatuaren zirriborroa.
2X13K	2006rako, % 75eraino murriztea zabortegira eramaten den hiri-hondakinen kantitatea.		2005eko adierazlearen arabera, 2004. urtean sortutako hiri-hondakinen % 35 balioztatu zen (% 65 zabortegira eraman zen).
2X16K	2006rako, hondakin arriskutsuen sorrera 2000ko kopuruetan egonkortzea.		2005eko adierazlearen arabera, 2003. urtean 346.491 tona hondakin arriskutsu sortu zen (2000. urtean baino % 8 gehiago)
2X17K	2006rako, hondakin arriskutsuen balorizazio-tasa % 50 handiagotzea, 2000ko datuen aldean.		2005eko adierazlearen arabera, 2003. urtean sortutako hondakin arriskutsuen % 51 balioztatu zen (helburutzat emandako maila bera).
2X18K	2006. urtean etxetresna elektrikoaren eta elektronikoaren hondakinen 8.400 tona biltzea eta gutxienez tresna bakoitzaren guztizko pisuaren % 70-80 berreskuratzea.		Otsailaren 25eko 2008/2005 Errege Dekretua, AEEHei eta horiek Kudeaketa Sistema Integratuekiko hitzarmenaren bidez kudeatzeari buruzkoa, indarrean jarri da.
2X19K	2006. urtetik aurrera, EAEn baja emandako ibilgailu guztiak deskontaminatzen hastea. Horretarako, berriz erabiltzea, birziklatzea eta balorizatzea areagotu behar dira, Europako araudiak finkatutako ehunekoetan.		Ibilgailuen desegite zaharrak erregularizatzea eta abenduaren 20ko 1383/2002 Errege Dekretuari, bizitza baliaigarriaren amaieran dauden ibilgailuen kudeaketari buruzkoari egokitzea.
2X23K	2006. urterako, baloriza daitezkeen altzairutegietako zepen % 50 balorizatzea.		- Bi proba-tarte egin dira eta Ballonti errekararen ardatzean erabili dira. - Interbiakiekiko eta Foru Aldundiekiko hitzarmenak abian dira. - Zementu-fabrikek % 100eko ahalmena dute zepa zuria tratatzeko.
2X24K	2006rako, EAEn sortutako eraikuntza-hondakinen % 60, gutxienez, berrerabiltzea edo birziklatzea. Hondakin horietatik arriskutsuak diren hondakinen % 90 behar bezala bereiziko eta kudeatuko dira.		- Gaikako eraisketari buruzko gidaliburua aurkeztea - Zura birziklatzeari buruzko azterketaren emaitzak amaitzea eta hedatzea.
2X25K	Bilgarriei eta bilgarri-hondakinei dagokienez, 2006. urtean helburu hauek erdiestea: Balorizatzea: % 60-75 Birziklatzea: pisuaren % 55-70, beiraren % 60, paperaren eta kartoiaren % 55, metalen % 50, plastikoen % 20.		Beirazko eta metalezko ontzietan buruzko helburuak betetzear daude. Alabaina, denbora gehiago behar da paperezko, kartoizko eta plastikozko bilgarriei buruzkoak erdiesteko.

Konpromiso jarraituak

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
2X01K	Parte hartzen duten sektoreak sentsibilizatzeko kanpainak egitea aldian-aldian, baliabideen kontsumoa eta hondakin-sorkuntza murrizteko.				<input checked="" type="checkbox"/>	Urtero egiten da.
2X06K	2002tik aurrera: emari ekologikoa kontuan hartzen ez duten ustiategi hidrauliko berriak debekatzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	Plangintza Hidrologikoko Bulegoak lur gaineko uren ustiapenari buruz 2002tik aurrera egindako txostenetan, emari ekologikoaren klausula eta emaria neurtzeko sistemak instalatzeko eskaera sartzen dira.

	Konpromiso KUANTITATIBOAK	Lortzeko aurreikuspena	Oharrak
2X03K	Lurzoruaren kontsumoa galaraztea dentsitate baxuko garapena sustatuta, eraikuntza-dentsitate altuagoak sartuta lurzoru egokienetan, lurralde-antolamenduko tresnen arabera.		EHLA Bera aurkezten diren txostenei gehitzen zaien irizpidea da konpromisoa, hazteko egokien jo diren lursailetan dentsitate txikia proposatu duten planteamendua berrikusteko espedienteetan. Alabaina, txostenaren atal hori ezin da loteslea izan eta hartara gomendio hutsa da. Lurralde Plan Partzialak eta Hirigintza Lege berria onestean konponduko da arazo hori, gutxieneko dentsitate batzuk ezarriko baitira.
2X04K	EAEko ekoiztako landare-olioekin egindako lubrifikatzaileen ehuneko gehitzea.	-	Aztertzen

3. XEDEko konpromisoen ebaluazioa**2002-2006 epean aurreikusitako konpromisoak**

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
3X03K	Natura 2000 Sarean jasotako eremuak babesteko, erabiltzeko eta leheneratzeko planak prestatzea.			X		Natura 2000 sarea EAEko ordenamendu juridikoan txertatzeko tresna juridikoak taxutzen jardun da: Gorbeiaiko BIL, Aralarko BIL eta Aiako Harriko BILaren LIFE erabiltzeko eta kudeatzeko gidaplana.
3X04K	Armañon, Aizkorri-Aratz eta Entzia natur parke izendatzea.			X		Aizkorri-Aratzi eta Armañoni buruzko Baliabide Naturalak Antolatzeke Planei behin-betiko onespena eman zaie 2006n.
3X05K	EAEko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala eta EAEko Itsasertza Babesteko eta Ordenatzeko Lurralde Plan Sektoriala bideratzea, naturaren aldetik interes handiagoa duten guneak babesteko figura espezifikoak sortuz.				<input checked="" type="checkbox"/>	Itsas Ertza Babesteko eta Antolatzeke LPSari hasierako onespena eman zitzaion 2005eko otsailaren 28an. 2005eko ekainaren 22an informazio publikoa emateko epea luzatu zen.
3X06K	Galzoriko espezie gisa katalogatuta dauden espezieen % 100 kudeatzeko planak prestatzea.			X		Galtzeko zorian dauden espezie guztien (13 animalia eta 7 landare) kudeaketa-planak eginda daude. Horietatik 5 eragiten dieten Foru Aldundi guztiek onetsi dituzte; 1, Foru Aldundi batek bakarrik; besteak Aldundiek noiz onetsiko zain daude.
3X07K	Eremu Sentikorren Katalogoa onartzea, 3/1998 Legea aplikatzearen.			X		Katalogo dokumentua eskura dago. Kultura Ondareari eta Korridore Ekologikoei buruzko informazioa hobetu beharra ikusi da bertan. Horretan ari gara.
3X08K	Natur Gune Babestuen Euskal Katalogoa egitea				<input checked="" type="checkbox"/>	
3X09K	EAEko Biodibertsitatearen Behatokiaren Sarea ezartzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	
3X10K	Genetikoki Eraldatutako Organismoen erabilera mugatuaren baimena arautzea.			X		Dekretua onesteko izapidetan dago.
3X12K	EAEko korridore ekologikoak ezartzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	2005eko urtarrilean aurkeztu zen EAEko Korridore Ekologikoen Sarearen diseinu-proposamen tekniko bat.
3X13K	Baso Antolamendurako Planak egitea erabilera publikoko mendien iraunkortasunerako.			X		2005.ean, egur-ustia ketara dedikatutako azalera antolatua 4.597 eta 3.177 Ha-koa izan da, herri-mendietan eta mendi pribatuetan, hurrenez hurren. Egur-ustia ketara dedikatutako azalera antolatua, horrenbestez, % 18 handitu da 2005en.
3X14K	EAEko Naturari eta Biodibertsitateari buruzko datuak eta informazioa biltzeko programa sortzea.			X		Aurreikusitako datu-biltegiaren analisi-fasea eta haren web-aplikazioaren prototipoa, garatzen. Fase hau 2006ko ekainaren burutzea espero da.
3X15K	EAEko basogintzarekin arauak adostea EAEko basoen kudeaketa iraunkorra bermatzeko.				<input checked="" type="checkbox"/>	
3X16K	EAEko basoen kudeaketa iraunkorra ziurtatzeko eta sektorearekin lotutako produktuen etiketatzea sustatzeko sistema abian jartzea.				<input checked="" type="checkbox"/>	Egur-ustiapenen jabeek oso ondo erantzun diote 2005en PEFC ziurtagiria onartzeari (2004en ziurtatutako lehen blokearekiko %20 hazi da azalera). 2005en, zurraren transformazio-sektoreko 70 euskal enpresa ziurtatu ziren zaintza-katean (ia sektore osoa).

	Konpromiso PROGRAMATIKOAK	Egoera				Oharrak
		Hasteko	Hasita	Aurrer.	Buka.	
3X17K	Antolamendu-dokumentuetan sartzea Paisaiaren Konbentzio Europarraren printzipioak.			X		Baleko balioespena, arlo honetan hobetzea espero bada ere, garatu beharreko arloa baita.
3X18K	Europako Batasunerako interesa duten habitaten kartografia berrikustea eta egitea, baita 92/43 Zuzentarauaren eranskinetan ez dauden eta EAERako interesa duten habitatena ere.				<input checked="" type="checkbox"/>	Habitaten kartografia egiten bukatu da.
3X19K	EAEko Paisaia Berezien eta Aparten Katalogoa prestatzea				<input checked="" type="checkbox"/>	Aurreproiektua 2005ko abenduan aurkeztu zen.
